

Bihar zabalduko da 2025erako Gipuzkoako gizarte eta kultur ekimenetarako laguntzen deialdia

- **Aurtengo edizioan gizarteratzea, ongizate komunitarioa, jasangarritasuna eta herritarren ahalduntzea sustatzen dituzten ekimenak nabarmenduko dira.**
- **Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko erakundeek 2025an garatu beharreko gizarte edota kultura ekimenetarako laguntzen edizio berriaren izena emateko epea abenduaren 9an amaituko da.**

Donostia, 2024ko urriaren 29a. Kutxa Fundazioak 2025erako Gipuzkoako gizarte eta kultur ekimenetarako laguntzen deialdi berriaren irekiera iragarri du biharko, urriak 30. Fundazioak, 2030 Agendarekin eta bere Plan Estrategikoarekin duen konpromisoaren ildotik, Gipuzkoa bidezkoagoa, sortzaileagoa, jantziagoa eta jasangarriagoa izatea bilatzen duten proiektuak babesten jarraitzen du. Edizio honetan, arreta berezia jarriko da gizarteratzea, ongizate komunitarioa, jasangarritasuna eta herritarren ahalduntzea sustatzen dituzten ekimenean.

2025eko deialdia Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) erantzuten dieten funtsezko zenbait esparrutan oinarritzen da. Horien artean, pobrezia, gizarteratzea eta bizikidetzaren jorratzen dituzten proiektuak nabarmentzen dira, pertsona eta kolektibo ahulei laguntzeko ikuspegiarekin. Gizarte-ongizatea eta autonomia pertsonala ere sustatu nahi dira, ahalduntzea eta parte-hartze komunitarioa sustatuz. Beste interes-eremu bat zahartze aktiboa da, bakardadeari aurre egiten dioten eta belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzten ekimenei arreta berezia eskainiz.

“Era berean, deialdiak genero-berdintasuna eta gizarte-ekitatea, haurren eta gazteen babesa eta balioetan heztearen sustatzen dituzten proiektuak babesten ditu, herritartasun kritikoa, kontzientea eta plurala lortzeko”, adierazi du Garbiñe Etxezarretak, ekimenaren arduradunak. Kulturaren arloan, arte-sorkuntza eta herritarrek kultura-ekitaldietan parte hartzea sustatzen dituzten ekimenak bultzatuko dira.

Horrez gain, lehenetasuna emango zaie jasangarritasunerako hezkuntzan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan lan egiten duten proiektuei, herritarrak larrialdi ekologikoaren inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin. Azkenik, euskararen sustapena ere babestuko da, euskal gizartearen elementu inklusibo eta kohesionatzaile gisa.

Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko erakundeek 2025an garatu beharreko gizarte edota kultura ekimenetarako laguntzen edizio **bihar, urriak 30 irekiko da, 09:00etan, eta abenduaren 9an, 14:00etan**, amaituko da izena emateko epea. Eskabideak elektronikoki aurkeztu beharko dira, Kutxa Fundazioaren webgunean eskuragarri dagoen deialdien atariaren bidez: www.kutxafundazioa.eus.

“Aztarna Ekosoziala” programaren baitako laguntza

“Konpromisoa bultzatuz” lan-ildoan aurki daitekeen programa honetako ekimen sorta anitzaren baitan, Kutxa Fundazioak Nazio Batuen 2030 Agendarekin duen konpromisoa erakusteko helburua dauka diru-laguntza honekin.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko bidean, garrantzitsua da tokian bertan jardutea, Nazioarteko Agenda 2030arekiko inplikazio kolektiboa aktibatzea eta lankidetzaren sustatzea, natura eta biodibertsitatea babestuz klima larrialdiari aurre egiteko besteak beste.

“Gipuzkoako pertsonen eta erakundearen konpromiso ekosoziala aktibatzearen helburuari erantzuten duen programa da “Aztarna Ekosoziala”, eta Gipuzkoako hirugarren sektore ekosoziala sendotzen laguntzeko ekimenak biltzen ditu”, gaineratu du Etxezarretak.

Erakunde onuradunek proiektuaren aurrekontuaren % 75era arteko laguntza jaso ahal izango dute, 20.000€ gehienez banakako proiektuetarako eta 50.000€ lankidetzaren ekimenetarako. Gainera, Kutxa Fundazioak bereziki lagunduko ditu Gipuzkoako gizarte-ehuna sendotzen duten lankidetzaren proiektuak.

Deialdi honen oinarriak www.kutxafundazioa.eus webgunean ikus daitezke.